


MANUEL LEKUONA
Prix MANUEL LEKUONA



Xabier
Diharce
“Iratzeder”



MANUEL LEKUONA Saria
Prix **MANUEL LEKUONA**

**Xabier
Diharce
"Iratzeder"**



1994



ASMOZ TA JAKITEZ

**EUSKO
IKASKUNTZA**

Egilea: Piarres Charriton

Auteur:



Remigio Mendibururen brontzezko eskultura
Sculpture en bronze de Remigio Mendiburu

CHARRITTON, Piarres

Xabier Diharce "Iratzeder" / Piarres Charriton; [traduction O. Larçabal]. - Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1994. - 88 p. : il. 21 cm. - (Manuel Lekuona Saria = Prix Manuel Lekuona; 12). - Texto euskera - francés. - Premio Manuel Lekuona 1994

ISBN: 84-87471-74-9

1. Xabier Diharce "Iratzeder" - biografia 2. Bibliografia - Xabier Diharce "Iratzeder" I. Eusko Ikaskuntza II. Serie III. tit.

Hauen laguntzarekin: Arabako Diputazio Forala, Bizkaiko Diputazio Forala, Gipuzkoako Diputazio Forala, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza.


EUSKO IKASKUNTA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS
Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia

ISBN: 84-87471-74-9

Depósito Legal: S.S.-985-94

Michelena artes gráficas, s.l.

Datu biografikoak	5
Données biographiques	39
Une gogoangarriak	69
Moments mémorables	69
Bibliografia	79



Aita Xabier Diharce Iratzeder

1

920 eko urtarrilaren 4 ean sortu zen Lapurdiko Donibane Lohizunen, Tourasse eta Gambetta gaurko bi karriken ezkinan dagoen Martikotenea deitu etxean, Xan Diharce, Pantxoa Diharce-Larretxe eta Delfina Lassegue-Okelar senar emazteen 4. haurra eta/edo 3. semea.

Beste haur horiek dira lerro lerro:

1. Mixel, 1914 ean sortua; 26 urtetan tiroz hilen dena, lagun baten altxatzera zoalarik, 1940 eko gerlan, ekainaren 6 an, Attigny herrian, Ardennes-eten, alarguna eta alaba Maite utzirik.
2. Pierre, 1916 ekoia; honek zion eman anaia gazteari naturaren, itsasoaren eta mendiaren alderako lehia, bai eta olerki ederren ezagutza; abokat ikasketak egin ondoan, bere bizia Parisen, bulegoetan ereman du; ezkongabe egon da.
3. Mayi, 1918 ean sortua, eta G. Demange Bordeleko medikuarekin ezkondurik sei haur izan dituena; gaurregun Donibaneko Iratzederrean bizi baita.
4. Xan hau beraz, 1920 ekoia, "Iratzeder" euskal idazlea edo/eta "aita Xabier" beneditar fraidea.
5. Jenofa 1924 ean sortua, Uztaritzeko "serora beltxetan", hots, "Kurutze Alabetan" irakasle izanik, gaurregun Mérignac-eko serora lagunekin lan egiten duena.

Sustraiak

Haur horien ama Delfina Lassègue-Okelar zen. Arbona Katalienetik zetorren, eta ezkontzaz Donibaneko portura etorria izanagatik, Lapurdi barneko leihorrean zeuzkan sustraiak; gaur ere Senpereko eskualdean bi deitura horiek ezagunak baitira. Bera, "familia ederra hazirik eta bere bizi luzean asko ikusirik", erran ohi den bezala, 1979 ean itzali zen Donibanen, 93 urtetan.

Aita berriz, Pantxoa Diharce, 1887 an sortua, eta 1975 ean bere Donibaneko sorterrian hil zena, denek "Putxutegi" deitzen zuten.

Putxutegiko seme zen alabaina, mende honen hasieran Pantxoa, edo ere "Pintxin" Diharce izena zekarren pilotari gazte bipila. Lapurdi alde horretan orduan galda handitan irakiten zuten "xuri" ta "gorri"- en arteko gatazketa leporaino sartua zen Putxutegi seme, eta ez bakarrik bera, baina etxeiko guziak, herrian barna eta urrun baitzeukaten erroak "Diharce"-tarrek.

"Diharce" izena bera "Eihartzeko" euskal izenaren forma frantsesta besterik ez da, jakina. Baino "Eihartze" deitu etxe asko badugu Euskal Herrian barna, bereziki Nafarroa Behere eta Lapurdiko mugetan, Hazparne - Bardotze eta Aiherra - Bastidako eskualdeetan. Horra zergatik zinez zaila den, gaur batzuek hain gogoko luketen genealogia zuhur eta zehatz baten antolatzea.

Bizkitanean, Eugène Goihenechek argitaratu paper batzuen arabera¹, 1305 ean, Martin Diharse delako bat, Hendaiako priore eta Biriatuko apeza, hil berria zen.

Zenbait mende geroago, Piarres Haristoy aihertar historialariak ospatzen ditu² Salvat d'Iharce, Tarbes-eko apezpikua (1577-1602) eta izen bereko haren iloba eta ondokoa, Salvat d'Iharce II (1602-1648), Bastida Eihartzetik omen zetozenak.

XVII. mendean, 1636 an, aurkitzen dugu ere euskal literaturaren historian, Ziburuko Etcheberrireren "Eliçara Erabiltceco Liburua" ren lehen orrialdeetan,

1. E. Goyhenetche, "Lettre de Vincent de Baudin....", texte de 1305 transcrit et traduit par E.G.", B.S.L.A. de Bayonne, 1968, .821-823.orr.

2. P. Haristoy, "Recherches Historiques, sur le P.B."Il. t., Bayonne Lasserre, 1884, 131-132. orr.

beste D'Iharce bat, latinezko bertsuak eskaintzen dizkiona Ziburutar idazle handiari. Bainan nor eta nongoa zen zuzen apez jakintsu hori? Eta askazi ote zen Nafartar apezpikuen sendiarekin eta/edo garai berean Donibane Lohizunen aurkitzen ziren izen bereko notariekin?³

Dena dela, Diharce-tarren izena urrun joana zaigu XVIII. mendean, Pariseraino; Parisen argitaratzen denaz geroz, 1783 an, liburu bitxi bat: "Erreurs populaires sur la médecine" deritzana, Jean Luc D'Iharce, eskuatari eta erregeren miriku jaunak frantsesez idatzia, baina euskarazko izenarekin, honela agertzen dena: "Miricountzaren gaineco popoulouien faltac"⁴.

Hurbilago ere finkatua zen ordukotz Eihartze-koen deitura, ezen XVIII. mendean, Larresoroko Seminarioaren eta Hazparneko Komentu Zaharraren sortzailea izan zen Joanes Daguerre apezaren bizian(1701-1785) aurkitzen ditugu haren laguntzaileen artean, Laurentz Diharce(1694-1763) Hazparne Altzietaiko nausia eta honen anaia Grazian Diharce apeza(+1781)⁵.

Eta ildo beretik, ondoko mendean Hazparne-ko Garat Pikasarri(1773-1846) Misionestegiko lehen buruzagi santuaren garaikide izan ziren, alde batetik Piarres D'Iharce (1765-1843) Bidasoetako (edo "Biestako") apez bitzi aipatua⁶ eta bestaldetik Salvat Diharce adiskide ona, Ezteiteko nausia⁷, seme bat apez izan zuena eta ilobaso bat ere bai Janpierre Diharce(1849-1931), izen berekoa, 40 urtez Baionako bikari nausi egona,⁸ guhausk ezagutu dugun gure osaba..

Donibane Ziburun gaindi, XVII. gizaldian dabiltsan Diharce-tar notarietarik aldiz bizpalau adar berezi agertzen zaizkigu ondoko urteetan, batzu heltzen baitira Serres-era, Sara-la eta gero Arrangoitze Orriotzera, hemendik sartzeko XIX. mendean, Getaria Agerrean, Bidarte Ganikotxenean eta Donibane Putxutegian⁹.

3. H. Lamant & J.M. Régnier, "Armorial de Bayonne et du P.B." II. t., Bayonne Ekaina, 109-111. orr.

4. J. Vinson, "Bibliographie de la Langue Basque" II. t., Paris Maisonneuve, 1891, "Jean Luc D'Iharce" art.

5. C.Duvoisin, "Vie de M. Daguerre", Bayonne Lamoignère, 1863, 164. orr., 82. zb.

6. F.Barbe "Vieilles Figures de Bayonne et du P.B. : l'abbé Diharce de Bidassouet", B.S.L.A. de Bayonne, 1944, 103-122. orr.

7. P. Haristoy, "Recherches..." op. cit., "Salvat Diharce", 291. orr.

8. Mgr J.P. Diharce,(1847-1931) Hazparne Ezteiteian sortua, Baionan zendua, 40 urtez Bikari General egonik.

9. H.Lamant & J.M. Régnier, op. & loc. cit.

Guk orai aipu dugun Pantxoa Diharce Putxutegi hori bada, Bidarte Ganikotxeneko Manex Diharce (1841-1905) eta Mariana Larretxe(1840-1914) Senperbaitako Zokotarraren semea zen; hau ere ordukotz borrokari bipil asko eman zituen Diharce-tarren odolekoa eta apeztiar adarrekoa.

Bidarte Ganikotxenetik atera bazen ere jadanik Manex Diharce-n anaia, Janpiarre Diharce, apeza, Mehaine eta Zuraidetik landa, Charles Bécas (1847-1911) olerkari famatuaren ordain Ahetzera erretor etorri eta hor hogoita hamar urtez higatu zena(+1930), Manex horrek berak, bere andrearekin Putxutegian izan zituen 9 seme alabetarik, lehen biak ere apeztu ziren.

Nola ez aipa lehenik premua, Janpiarre Diharce (1866-1959), Lavigerie kardinalaren aita xurietan sarturik, 60 urtez Kabilian kristau fedearen lekuko bizi izan zena?

Ondotik, Jan Batista Diharce 1869-1945), Putxutegiko bigarren semea Larresorat joan zen apezteko xedetan. Apeztu eta, behin Larresorora irakasle bezala itzuli zen, baina seminarioaz gobernuia jabetu zelarik, 1905 ean, hango inguramena bederen zain zezan, Arnaud Abbadie seminarioko buruzagiak Larresoroko erretor izenda arazi zuen. Hortik bada, 63 urtetan, 1932 an, Beneditar fraile joan zen Belokera, eta aita Basilio bilakatu, han hil baitzen 1945 ean.

Hirugarren seme batek ere, Jean Louis izenekoak, Larresoroko bidea hartu zuen, bainan apezgai zelarik hil zen gazterik.

Putxutegiko beste haurrideak ezkondu ziren, bakoitzaz bere alde, hala nola Mari, alaba zaharra, Putxutegian berean, Ahetze Arretxeko Oier Mimiague-kin.

Marixan, bigarrena, Larresoro Gazteluko Andere Caillava, hiru haurren ama, goizik alargundua, izan zen.

Xaneta aldiz, hirugarren ahizpa, Akizerat ezkondu zen eta familiatu Ducourau jaunarekin.

Anaia zaharragoen bidetik, Pantxoa Diharcek ere egin zuen behin egonaldi bat Larresoron, bainan gero bidez aldatu zen eta Donibanera itzuli.

1914eko gerla aintzineko batailetan Goyheneche eta Légasse-tiar xurien alderdi eta interesen alde gudukatu zen, Putxutegi seme, Paul Bellevue Donibaneko apezta nausiaren aholku ixilei jarraikiz. Bestalde, erran bezala, gazterik ezkondu zen eta familiatu Arbona Katalieneko alaba propiarekin.

Gerla ondoan, lagun batzuekin eraikia zuen "Banque Populaire du Pays Basque" deitu bankoaren zuzendaritza hartzea tokatu zitzaion, eta bestalde, politika sailean, "Arrondizamenduko kontseilarri" hautatua izan zen.

Zorigaitzez gerla-ondoko urteak, urte nahasiak izan ziren eta II. gerla Nagusia hurbiltzera zoala, erauntsiak jo zuen gogorki Putxutegiren barkua. 1930-1936 tarteko urte gatazkatsuetan jasan zuten ekaitza Pantxoaren etxeekoek eta Xan-ek orduan iragan bere haurtzaroa.

Haurtzaroa

1

926 eko urtarrilaren 6 a Trufania zen, Donibaneko pestaburu nagusia: Xan Diharce tipia oroitzen da ibilaldiko Aingeru Izardunarena egin behar izan zuela xintxo, Elizan eta karriketan barna, bere 6 urteak betetzearekin.

1930 ean ordea, berak 10 urte zituela, bestelako gertakari batzuez oritzekoia izan zuen gure haurrak: Donibaneko elizaren inguruan, aste saindu irian gertatuez.

Astelehen saindu egunean hil zen Berho apeza, Donibaneko bikario gazte maitagarria.

Asteazken saindu arratsean berriz, herriko gizonak oro beren elizkizun berezirako elizan bildua zeudelarik, kantuz otoi zean, ikaragarriko galerna jauzi zen hurbileko itsasotik, ihortziria eliza dorre gainera erori zen, zurezko kurutze handia eliza barnean hautsi eta teilatua kraskatzen hasi; argiak oro itzali ziren, jende helduak beldurra hartu zituen eta apezaren manuz bere kaderak buruaren gainean ezarri omen zituzten. Elizaren aldeko bere etxearen, izialdurarekin, Xan Diharce tipia amaren ondora laster hurbildu zen oihuka: "Ama, ama, munduaren akabantza !".

Urte bereko urrieta, anaia zaharrenekin batean, Uztaritzeko ikastetxerat igorri zuten etxeekoek. Nahiz sartzeko egunean berean ixtripu bat izanik Larresoro Gazteluko izebareن etxearen, Donibanera itzuli behar izan zuen ikasle tipiak, zenbait egunen buruko bere eskola sartze berezia egin zuen Uztaritzen, lehenik Lakaberatz-ekin 6. gela dastatzen zuela eta gero, ikasle irakaslek ez izanez harreman funtsekorik, 7. gelan kokatzen zela Bordarrampe-rekin.

Gogotik itzuliko zen Pintxin IV.a Uztaritza ondoko urtean, baina ez baitzuen oraino apezgai izateko asmorik agertu, berek bazekizkiten arazo batzuengatik, berriz Donibaneko eskolara bildu zuten burasoek seme gazteena.

Donibanen iragan zuen beraz Xan Diharce-k frantses eskoletako "zertifikata". Xehetasun hau gogoan du halere gure adiskideak, musikako proba iragaitean Charles Colin¹⁰ musikari ezagunaren aintzinean, kantu

10. Ch. Colin, musikaria, E. Decrept euskal idazlearen lankidea. Iku "Maitena", "Semetxia" eta beste euskal operak.

euskara bat, Elizanbururen "Ikusten duzu goizean..." aurkeztu zuela: Etxeko mahainen aitak mantentzen zuen euskal giroaren adibide, menturaz.

1931, 1932. urteetan ordea, Mixel eta Pierre anaiek Uztaritzetik ekartzen zituzten berriek eta Xan-ek berak zituen hango oroitzapenek, nolazpait gogoratu zioten mutiko gazteari apezteko asmua eta beraz Uztaritzera itzultzeko xedea.

Baina seme gazteenak Putxutegi aitari salatu ziolarik bere asmua, honek berehalia ihardetsi zion: " Hi apez? Ez dakik eta euskararik !".

Eta horra zergatik ordu beraean, bere 12 urteekin, Xan Diharce hasi zen bere euskaraz berjabetu beharrez, etxen beraean aurkitu zuen "Piarres"¹¹ liburuaren jorratzen, hiztegiarentzat amaren jakitatea baliatuz eta bestalde ahal zituen euskal kantu guziak ikasiz.

Gero, kofesiotan ikusten baitzuen Leon Leon¹² Donibaneko bikari handia, honi agertu zion haurrak bere xedea, baina honek ez zion hanbat kasurik eman: " Zer, haizen bezalako mutiko txarra apeztu ? ", zion ihardetsi.

"Mutiko txarra" ordea ez baitzen lotsakor, mintzatu zitzaison Donibanen gaindi iragan zen beste apez bat, Joanes Gaztelu misionesta bipilari, eta honek herriko erretoraren gana bidali zuen.

Paul Bellevue jaun erretorak aspalditik ezagutzen baitzuen haurra eta haren askazgo guzia, zalantzarik gabe eta berehalia Pascassio izeneko beste apezgai bat deitu zuen, irakasle honekin latinezko lehen urratsak egin zitzan mutiko tipiak eta gero urrietaan, Uztaritzeko apezgaitegian maila onean sar zedin.

11. J. Barbier(1875-1931), "Piarres", bi tomatan; Ikus Ramon Sanchez-ek eskaini lehen tomoaren argitalpen berria: "Klasikoak", 54. zk. 1992 .

12. Leon Leon (1896-1962) Hazparnen sortua, Uztaritzeko erretor zendua, euskal idazle ezaguna.

Apezgai

Hona beraz Xan ala Ganix Diharce, donibandar apezgaia, Garat Hazparne Lordako apezak zuzentzen duen ikastetxean 1933ko urrian, bigarren mailako 5.a deitu gelan onartua, Murgiart apeza duela irakasle.

Arazorik gabe iragaiten dira 1933eko eta 1934eko ikasturteak, 5.aren ondotik gaindituz 4.a, eta ezagutzak eginez Serval, Lassalle, Pastor eta beste irakasleekin.

Irakasle horietarik batek ordea begiztatua du hastetik donibandar apezgaia eta berettertzat hartua, hau da Piarres Lafitte euskalzale ezaguna eta 3. gelako irakasle dena. Oroit alabaina, AINTZINA-ren sortzaileak Donibane Lohizunen imprimitzuen zuela bere aldizkaria eta han berean egin zuela lehen aurkezpena, inguruan zituela, Amoçain, Duboscq, E.Goyheneche, J.Mestelan, de Jauregiberri, Dargains anaiak, Mixel eta Pierre Diharce; hauen itzalean zegoelarik Ganix Diharce anaia gazteena. Funtsean hau bera ibili zen etxez etxe Donibandarrei agerkari berria eskaintzen.

Lafittek jakina, ez zuen beraz gibelatu euskal ikasketetan Uztaritzeko bere ikaslea, nahiz honek berak aurkitu zuen ikaskide lagunen artean, euskal irakasle berezi bat, lanarte oroz eskumenean zeukan, Piarres Bidonde, Eihernalarre Gorriaineko semea.

Dena den, 1935-1936ko ikasturtea, Piarres Lafitte irakaslearen gidaritzapean 3. gelan iraganen den urtea, guziz aberatsa izanen da Ganixentzat.

Lehenik, eta 1935eko udazkenean, Atharratzeko Eskualzaleen Biltzarrean gertatzen da bere anaien Ganix? Han aurkitzen eta entzuten ditu, bere euskal abertzale amentsen pizle, gure hemengo Oxobi-aren ondotik, Hegaoaldetik etorri diren, Aitzol, Eizagirre eta Monzon. "Dena begi" zegoen mutikoaren oroitzapena du gogoratzen Iratzederrek, "Argiz-argi" olerki sortan argitaratzen duelarik, "Zer gizonak!", 1949ko poema luze ta kartsua.

Bestalde, eta Lafittek bultzaturik, Martzel Mendiboure ikaskide hazpandarrarekin eta beste lagun zenbaitekin ikastorduetatik landa abiatzen dituzte Katoliko Ekintzak, langile, nekazari ala ikasle gazteen tarteko asmatu berri dituen bilkurak.

Azkenekotz, irakasle berari esker, "Poxpolin" aldizkaria ezaguturik, Donostiako EL DIA egunkarira, Ixaka Lopez Mendizabal-i bidaltzen dizkio inprimiturik ikusiko dituen zorioneko bere lehen bertsoak:

"Jainkoaren ainara etortzen denean,
"Ohantze egiterat etxe hegazpean,
"Zer zorion handia dutan bihotzean,
"Zeren izanen baita bizia lurrean!".

Ondotik, beste zenbait bertso ere, "Donibandarrak" deituak igortzen dizkio ESKUALDUNA-ri, 1936 eko urtarilean, eta apirilean berriz AINTZINA-ri, "Apezgaitegia" izenekoak:

"Menditto baten gainean, hurbil zero gainari,
"Zabal zabala jarririk, xuri ta gorri,
"Gure apezgaitegia da urrundik ageri.."

Urte bereko ekainaren 29 an, bere bestakari, haren ikasleek Piarres Lafitte ospatzen duten bilkuraren, eskerronezko bertsoak eskaintzen dizkio Ganix Diharce-k lagunen izenean.

Beste itxurarik izan zuen zorigaitzez óndoko ikasturteak, hots 1936-1937 koak, bere ama mintzairaren eta bere sorterriaren kezka jadanik hain barna hartua zuen euskaldun ikasle gaztearentzat.

1936 eko uztailaren 17 an, ikasle guziak oporretan ginelarik alabaina, gerla piztu zen Bidasoaz haraindiko Euskal Herrian: Gure burasoek hainbeste aldiz aipatua ziguten kanoien hots lazgarria, hor genuen auzoan, etxeko alorretik ozen.

Jarraian, auzotik gerlak ekarri ihesiliarrekin harremanetan sartzea zer den, Iparraldeko gure belaunaldiak ere behingotz ikasten hasi behar zuen, eta gaur arte eskola horrek irauten du.

Eta behin 1914 eko hausturaren ondotik, Hegaoaldeko haurridgekin berriz lankidetza abiatuak ziren Iparraldeko Lafitte, Lhande, Otsobi, Jauregiberri, Goiheneche eta "AINTZINA"-ren inguruko lehen aberkide bakanak oraikoan uko egitera behartuak bezala izan ziren.

Hala nola, Hegaoaldeko "Mendigoizaleak" gogoratuz, ikasle multzo batekin Iparraldeko "Menditarrak" sortu nahiz abiatua zen Piarres Lafitte bera zalantzatan ibili zen, ea ideki behar zuen udako bere lehen kanpatzealdia. Eta azkenean, Eiheralarren bilduak zituelarik, J.Mestelan, Jauregiberri, Alhabegoity, D.Irigoyen, Limonaire, Lissarague anaiak eta Ganix Diharce, denak han utzi behar izan zituen Jakes Mestelan-en gomendio, bera Nafarroako gerlarien eta Probintziakoaren ararteko egitera Donostiarra joan beharrez. Aitorlako dut Piarres Lafitteek berak ez zuela gertakari hori ahantzekoa, zeren zenbait egun hil aintzin, Baionako ospitalean neronek egin

nion ikustaldi batean, aipatu baitzidan berak Donostian gerla hastean egina zuen ararteko lan hori¹³.

1936 eko ikasturtea gaizki hasi zuen bestalde Pintxin adixkideak, osasun arazoengatik, medikuen manuz Uztaritzeko lagunak eta ikasketak utzi behar izan baitzituen sei zazpi hilabetez.

Beharrik bere izeba Larresorokoak, lagunetarik hurbil, bere ebzen hartu zuen eta hor piano txar batekin ikasi zituen aita Donostiak GURE HERRIAN beren musikarekin aurkezten zituen euskal kantuak. Horrela ere aski erraz elgar ikusten genuen gogaide, lankide eta adiskide ginen zenbaitek.

Gainera erran nezake, orduko egun latzak eta Euskadiko gerla Uztaritzeko barnetegian bizi genituen lagunentzat, gure kanpoko berriketari ixila izan genuela zenbaitzuk Larresoroko lagun "eria".

Euskararen eta euskaldunen aukako erasoa goihenean genuelarik, Aitzol eta Lekuona eta Markiegi erhaitean zituztelarik, Gernika eta Durango sutan zirelarik, Mugika apezpiku korporatuaren bidera Mathieu apezpikua gure seminarioran iragaiten zelarik, eta gure inguruan gehienak lasai edo etsai zirelarik, nola egon ixilik eta geldirik?

Gure euskara lantzeko eskutan bagenituen ere Lafittek eman historia edo gramatika oharrak, bai eta aita Laphitz edo Leon Leon-en idazki eredugarriak, Pintxini esker edo nolazpait biltzen genituen, euskaraz ez bazen frantsesez edo gaztelaniaz, Euskal Herriaren eta Euskaldunen aldeko liburu eta irakurgaiak: Nonbaitik eskuratzenten genituen "Euzko Deya", "Sept", "Temps Présent", "Esprit", "Peuples & Frontières" aldizkariak, Alfredo Mendizabal eta Jacques Maritain, François Mauriac eta Georges Bernanos, edo aita Azpiazu-ren liburuak.

Gero-ta itsuago, hertiago eta jasangaitzago baitzitzaizkigun Domingo Soubelet, Xalbat Arotzarena edo Leon Lassallen artikuluak, Baionako "Eskualduna" astekarian edo "La Presse" egunkarian agertzen zirenak, hona non ustegabetarik, Donibanetik etortzen zitzaion gure olerkari gazteari, Pierre Laramandy, "Le Courier" egunkariaren jaun zuzendaria bera, asteroko orrialde euskara, "Eskual Herria" deitzen zuena, zabaltzera: Hor zituen Ganix Iratzederrek argitaratu "Pindar eta Lanho"-ren lehen bertso lerroak. Nork asma gure atsegina!

Dena dela, orduko eritasunarengatik Ganix Diharce-k ez zuela neholaz goimailako ikasketarik egiten ahalko irakasle zenbaitek erabaki omen zuten,

13. Gerotzik Jacques Mestelan-ek eta Iratzederrek berak berretsi didate Piarres Lafitte zenaren aitormena.

bainan halere 2. gelako arduradunak, Xobur Bisquey jaunak, eman zion ondoko gelara, 1. era iragaiteko baimena.

1937 ko udan iheslari askorekin ezagutzak egin zituzten Donibandarrek, eta orduan adiskidetu zen bereziki gure laguna Ixaka Lopez Mendizabal Tolosar argitarazlearekin eta Tomas Garbizu, Lezoko organo joilearekin.

Tomas Garbizu¹⁴ izan duela bere euskal kantuaren eta orohar bere musikaren lehen erakaslea aitortzen du gaur Iratzederrek, nahiz geroago beste musikari asko aurkituko duen bidean eta lankide izanen: aita Donostia eta aita Lerkundi, Juan Urteaga, Jose Olaizola eta Francisco Bengoa adibidez.

Ondoko ikasturtea osasun arazo gehiegirik gabe iragan zen Uztaritzen, Ernest Canton jaunarekin, Ganix Diharce-entzat. Ikasleen arteko jolasetan ere partehartu zuen: lasterkako probetan guziz aipatuak izanak baitziren egundainotik Pintxin anaia. Lore jokoetan aldiz, sari bat irabazi zuen erdarazko olerkietan, sentiberatasun handia nabari baitzitzaion, lagunartetik galdu berri zituen ikaskidei, Lyezko, Perez eta bereziki Doyhenart Sempere Uhartetxeberriko kusi zenari eskaini zien, "Ne les oublions pas!" izeneko poematxoari¹⁵. Lehen aldiakotz ere 1938 an, GURE HERRIA aldizkariak argitaratu zituen "Ganich Iratzeder" sinatzen zuen olerkari berri baten bertsoak, "Ohetik" deituak.

1938-1939 ko ikasturtean Uztaritzetik Baionako seminario nagusira iragan zen Iratzeder, urte bereko Martzel Mendiburu, Paul Giltzu, J.P. Iratxet, Pierre Labadie, Pierre Haristoy, Jean Miguras eta beste ikaskideekin. Han aurkitu zituen ikasle lagun eta irakasle berriak eta lokarri berriak egin bereziki Pierre Narbaitz bere filosofia irakaslearekin eta Arnaud Larralde bere "zuzendari izpiritualarekin"

Anartean harremanak ez ziren eten Piarres Lafittekin, ezen GURE HERRIA-ren idazkariak gero ta maizago argitaratzen zituen G. Iratzeder delakoaren olerki kartsuak: "Maite zaitut" eta "Itcharoa", "Iibili naiz" eta "Arratsean"¹⁶.

Orduko lehen bertso horiek bazaukaten jadanik beren egileak bere biziaren hastapenetik bizi izan zituen "pindar eta lanoen" marka; gogoratzen zizkiguten Jean Elissalde Zerbitzarik, Piarres Lafitte Ithurrealdek eta bereziki

14. Tomas Garbizu musikaria Lezon sortua ta zendua (1901-1989)

15. "Bulletin des Anciens Elèves du Petit Séminaire Saint François Xavier d'Ustaritz", 1938-1939.

16. G. Iratzeder, "Ohetik", "Gure Herria", 1938, 207-208.

Jules Moulier Oxobik, adin berean ontu ta argitaratu zituzten beren lehen bertsoak, hauek ere baitziren beren gisara, "Botz, oihu, deiadar, nigar"¹⁷.

Aitor dezagun ondoko hilabeteek eta urteek eman behar ziotela poetak berak zioen bezala, ez baitezpada "pertsu ederren" egiteko parada, baina bai "pindar, auhen, amodio eta goiko bozkario" hartzeko eta emaiteko zoria¹⁸.

1939-1940 ikasturteak ekartzen digu alabaina orduan 19 edo 20 urteak betetzera goazinei, II. mundu gerlaren hastapena. Gure laguna oroit da iraileko lehen egunetarik batez, Donibane Lohizuneko apezak manaturik, eliza dorre petik berak jo zuela gerla deia. Gero ikusi zuen etxetik eta herritik urrentzen berriz itzuliko ez zitzainen Mixel, anaia gehien eta maitea.

Non, nola eta zertan iragan zuen Iratzederrek urte hori?

- Baizik- eta apez eta apezgai hainitzak soldadutzara deituak zirela, seminario nagusiko buruek igorri zituzten beste apezgaiak ikastetxeetako irakasleen laguntzera. Baionako San Luis ikastegira bidali zuten behin Ganix, baina 15 egunen buruko, Pabeko hirian den "Beaufresne" ikastetxera izendatu.

Hogoi urteak bete zituen urte horretan beraz, haur zain bezala iragan zituen hilabeteak Donibaneko apezgaiak. "Biziaren Olerkia" kurritzen duenak ikus dezake non zerabiltzan haren gogoetak eta xedeak:

"Gaur hogoi urte izaki eta, orai ari naiz gizontzen,
"Nere bihotzak ereman alde naiz orai arte ibili,
"Bainan huna nun xede azkarren ordu handirat jin naizen.."

Eta jarraian dator Kristorekilako elkarrizketa:

"Atsegabea ote da beraz mundu huntako legea?
"Zertako dugu zorionerat oro geraman lehia?
"- Bai ikusten dut, Zuretu duzu guzien atsegabea,
"Zoriona den zerurat doan zurekin gure begia!"

Berehala horra hor erabakia, beste fededun handi baten, hots, Mixel Garikoitzen "Huna ni" hura, gogoratzen diguna:

"Heldu naiz heldu, Kristok suturik; idor ditela begiak !
"Atsekabeak neretzen ditut, neretzen apez jauntzia,
"Nere baitatik ohiltzen ditut lurreko xede guziak,
"Nasaikiago etor dakidan goiko zorion bizia!"¹⁹.

17. J.Moulier, Oxobi, "Botz-oihu, deiadar, nigar" , Baiona Porché, 1913.

18. Iratzeder, "Biziaren Olerkia", Bilbo Mensajero, 1983,

19. Ibid. "Haur zain", 68. orr.

Uste baino bihurriagoa izan zen ordea oraino hogoi urteko apezgaiaren bidea: Uda hartako oporrak etortzearekin eta sorterrira itzultzearekin, Ganixek ikusi zituen lehenik Poloniar iheslariak portuko itsasuntzieta igaiten eta Angleterrari buruz abiatzen, gero Hitler-en tropak herrian garaile sartzen, eta doi doia zenbait aste berantago, anaia Mixel zenaren hil berria etxera heltzen²⁰.

Gertakari horien guzien oihartzuna aurki dezakegu poeta gaztearen kantu bertsoetan. Hona adibidez:

"Kapadun bat nigarrez ikusi dut egun

"Elizatik ilkitzen gure Ama lagun:

"Zure maitea alargun".

ondotik ohar batekin: 1940/08/09, anaiaren ehortz egunean²¹.

Zenbait egun geroago, seminariorat itzultzen da Ganix bere apezgai lagunekin, bainan aleman soldaduak seminaristen egoitzaz behartzen omen baitira, apezgaiek beren ikasturteko aterbe izanen dute Baionako aita kaputxinoen komentuan eta ondoko bizpalau "villa"-tan. "Laetitia" edo "Bozkario" izeneko txaletean, kaputxinoen etxe aintzinean biziak tokatzen zaio Iratzederri eta hortik abiatuko ditu aldeko kaputxindegian aterbe aurkitua zuen aita Donostia-rekilako harreman aberatsak: Urte hartan zuten atera elkar lanean egin lehen obra: Donibane Lohizuneko Begiraleentzat eguberriko prestatu EGUERRI ikusgarria²².

Beste oroitzapen berezirik ez dukegu ikasturte hartaz, baizik eta gure lagunak ondoko udan Donibane Lohizunen ezagutzak egin zituela Markos eta Jakes Légasse bi anaiekin. eta hortik atera zela AINTZINA aldizkaria berpizteko asmua.

Ikusi genituen Markos eta Ganix bi adixkideak zaldi ta karrosarekin bidez bide gure etxeraino etortzen²³. Lafitten baimena ba omen zuten; Dassance, Oxobi, Elissalde eta beste euskaltzaleen aholkua bildu nahi zuten. Gero Haltsu herriko etxe zahar bat beren gain hartu zuten, eta han, Domingoteia hartan, AINTZINATEIA ideki baitzuten AINTZINA berriaren egitasmoa gauzatu beharrez 30 bat gaztelagun, gehienak apezgaiak, elgarretaratu ginen: Legasse anaiek bazuten dirua, E. Goyhenechek behar zuen aurkitu

20. Ibid. "Hila da", 85. orr.

21. Ibid. "Alargun", 86. orr.

22. "Eguerri", Urt Ezkila, 1951.

23. "Aintzina", 1942 ko, 1. zenbakia, "Patarrez Patar", 6-8. orr.

papera eta guziei zoakigun hitz neurtuz edo laxoz textuak prestatzea, Iratzeder genaukan, jakina, arduradun nagusi.

Udazkenerako gure ustez proiektua xutik behar zen. Eta oporrak bukatzearekin Baionako inprimategiari hurbil egin bilkura batetarik baikor itzuli nintzen.

Ez nituen ordea kartak oro ezagutzen: Ez neki gure "Zuzendari" Ganixek arazo zenbait bazituela Markox adiskidearekin, ez baitziren biak urrats berean ibiltzen ohiituak²⁴. Eta ez neki orozgainerik, bere urrats guzien artetik, gure apezgai laguna Belokeko Beneditarren komentu inguruan zebilela, bera han sartzeko asmutan, egun laburrik barne.

Ondotik ordea jakin nuen, aboztuan gure Ganix, Bernard Lavie Athos-Aspis-eko ikaskidearekin hitzarturik, Beloken izana zela, ikuska bezala, eta gero, bere "zuzendari izpiritualaren" aholkua entzunik, buruzagiaren baimena ardietsirik eta etxeako abisaturik, erabakia hartua zuela fraidegai bezala bere buruaren aurkezteko Beneditarren komentuan.

1941eko azaroaren 6an, aita Hondet abadeak ongi etorri egin zion beraz Belokeko komentuan, bere aita Pantxoak lagundurik, heldu zitzaien Ganix Diharce fraidegai berriari. Bizpahiru egun lehenago, erabakiaren berri emana zion berak Markos Legasse-ri eta emana zidan ere nihauri, AINTZINA-ren asmua gure gain gelditzen zela erranez.

Horra nola bada gure aldizkari berria apur bat atzeratu zen eta gure apezgai laguna bide berriari lotu.

24. Halako batez etsiturik, Sabino Arana Goiri-ren hitz hauek bidali zizkion Markosi Ganixek: "Nahiago det hil Aberriaren amaia ikusi baino!", komentario honekin: "Siniestre menteur!".

Xabier Iratzeder

Fraide edo serora gaien ohitura da, jantziz eta izenez aldatzen direla, beren xede berria agertzen dutelarik. Behin "Xan" eta gero "Ganix" izena entzuna zuen gure lagunak erabaki zuen "Xabier" izen berritzat hautatzea. Aitortuko dut neronek orduan "Xabier Gazteiz" izenordea bainerabilan, gure gogokidetasunaren adierazgarritzat hartu nuela ene adixkidearen hautu hori²⁵.

Dena den komentuan sartuz geroz fraidegai berriak bere aprendizgoak hasten ditu bere kidekoekin aita maisu baten gidaritzapean. Aita Ximun Etcheverry Heletarra izan zuen lehenik anai Xabierrek gidari, gero Alta Gabriel Lertxundi Ziburutarra eta azkenik aita Gregorio Joannategi Ithurztarra. Fraide gai lagun zituen berriz Louis Lavie, Baionako seminarioan ezagutua, Bruno Berho Donibaneko bikari zenaren anaia eta Adrien Gachitegi Aldudarra.

Epeak bete zituenean, urtearen buruan, bere fraide agintza lehenak egin zituen anai Xabierrek: 1942 ko azaroaren 17a zen.

Hortik landa, apezteko xedetan, teologia ikasketak hasi zituen berehala, aita Darricau, izpirituzorrotzeko Landestar fraide argiarekin, baina berriz ere ustegabe batek hatzeman behar zuen beneditar gaztea, ikasturtea bururatzean. Ez zen ordea bakarra kasu berean gertatu zena. 1943. urtean alabaina, Frantziako gobernuaren manuz 21 urteko gazte guziak deituak izan ginen lanera, Alemaniara.

S.T.O. edo "Service du Travail Obligatoire" delako horrek sortu zuen Frantziako eta Euskal Herri iparraldeko gazteen artean sekulako eztabaidea. Askorentzat eta bereziki gure elizaburuzagi gehienentzat, gazte guziek eta are gehiago kristauek, eginbide genuen Frantziako gobernu legezkoaren manuari jarraitzea.

Baziren halere han edo hemen apez edo fraide zenbait, dogma hori dudan jartzen zutenak, lehenagotik ohartuak baitzitezkeen, apez, apezpiku, aitasainduei gertatu ohi zaiela errebelatzea, Izpiritu Sainduaren izenean sartzen direlarik gizonaren beraren jakitatearen eta zuhurtziaren

25. "Xabier Gasteiz" hartua nuen "Aintzina" aldizkarirako izenordetzat, ordukotz miresten nitzuelako bi euskaldun handi horiek, bai Xabierreko san Frantses(1506-1552) bai Vitoria Gasteiz-ko Frantses (1486-1546).

gomendio Jainkoak uzten dituen eremuetan. Boterea duenari ahanzten alabaina, Frantses Vitoria Gazteiz-eko teologo handiak XVI. mendean errepikatzen zuena: “*Papa non est Dominus Mundi*” “Ez, Aitasaindua ez da Munduaren Jabea”²⁶.

Holakoetan beraz oroitzen naiz Donostiatik Miarritzera bera ihesi etorria zelarik, Gelasio Aramburu apez on eta maitagarriak neroni eman zidan aholkuaz : “ Eztabaidan daudelarik elizaren buruak, zoaz bada zure aldean Jainkoak berak jarri dituen etxekoentzutera”.

Hori bera egin zuten bada orduan Belokeko aita abadeak eta haren lagunek, beren gazteak igorri baitzitzuten lehenik etxekoentzutera. Eta gertatu zen etxeko guziek beren semeak mendiz bestaldera igortzea zutela hautatu. Lazkao-ko Beneditarren komentura iragan ziren horrela ekainean Beloketik lau fraide gazte, hots, M. Agerre, A. Gachitegi, R. Gantoy, eta B. Lavie. Ondoko hilabetean bide bera hartu zuen Xabier anaiak. Bere osasun txarrarengatik Xabier Diharcek izan zuen laster gibelera itzultzeko baimena eta berriz Beloken sartu zen urriaren 8. an.

Hor berean eta hiru hilabeteen buruan, abendoaren 14. ean, gertatu zen oraino beste gertakari batzuen lekuko izan behar zen Xabier anaiak: Aleman poliza etorri zen alabaina egun horretan Belokeko komentura eta etxeko hiru buruzagi lehenak ereman zituen berekin. Aita Darricau askatu zuten Bordeletik, hiru hilabeteen buruan, eta honek hartu zuen gerotzik etxearen behin behineko ardura, baina beste biak, aita Hondet abadea, eta aita Joannategi prioreoa, Alemaniako Buchenwald eta Dachau deitu zelai beltz ikaragarri haietara preso altxatuak izan ziren, eta gerla bururatu arte han egon preso.

Anartean bere gelan, Xabier anaiak, aurkitua zuen, ikasketen eta otoitzent artetik egiteko eginkizun berri bat: Ezen ez zen agortua oraino haren bertso iturria. “Pindar eta Lanho”-ren ondotik datozen beste olerki sortak, “Biziaren Olerkiak” biltzen dituenak, hor daude lekuko: aipatu edo aipatuko ditugun harat-hunat eta gertakarien oihartzunak baizik ez dira; Lazkaoko itzulia edo etxeko gorabeherak, adibidez²⁷

Aita Gabriel Lerchundiak prestatzen ari zuen orduan Euskal Herrikotzat eliza kantu liburu bat, “Kantikak” deitua²⁸. Iduritzen zitzaison aita Gabrieli, euskal kantiken altxorrak bazuela, bai aireetan bai bertsoetan, berrikustearen

26. F. Vitoria-koa, “Indio aurkitu berriak”, P. Charriton-en itzulpena, Bilbo Klasikoak, 1991, 115. orr.”Aita Saindua ez da mundu osoaren jabe zibila edo temporala”.

27. Iratzeder, “Biziaren Olerkiak”, 134, 153, 157. orr.

28. G. Lerchundi “Kantikak”, Bayonne Le Livre, 1948.

eta osatzearen beharra. Aireen aldetik, bazuen berak bere ikuspegia, eta musika lanetan trebatua zen, Ekialde hurbileko eliza musika ere ordukotzat lantua baitzuen Palestinako Beneditarren etxeetan, baina bertsoentzat ez zekien nora jo. Iratzederri eskatu zion bere laguntza. Eta honek atseginekin onartu; emaitza ederrik ekarri baitzuen laster anaia bien lankidetzak.

Lankidetza hori hasi berri zelarik eta Xabier anaieren ikasketak aintzina zoazelerik, 1944 eko udaminean Alemanek lekuak hustu behar izan zituzten gure eskualdeetarik eta han, Iparraldean gerlak bururatzeko itxura hartu zuen.

1945 eko otsailean bizkitartean, Frantziak armada berri bat moldatu behar zuela eta, soldadugaiak deitzen eta biltzen hasi ziren buruzagi berriak eta horrela, Belo keko Xabier anaiak, bere fraide gela utzirik, Pabeko Bernadotte soldadutegira eta handik Idron-eko larre zelaira joan behar izan zuen. Artxa bat edo bestez halere, behar ziren paper eta baimen guziak bildurik, Mendekoste egunetan, bere betiko fraile agintzak egin zituen(1945/05/20).

Eta jarraian, zenbait aste barne apeztasunera heltzeko azken urratsak bete ondoan, Belo keko aita Hondet abadea bera eta aita Joannategi priorea etxera sartu zirelarik 1945 eko ekainaren 8.an, 1945 eko ekainaren 6.an, Leon Terrier Baionako apezpikuak apeztu zuen aita Xabier Diharce, Beneditar seroren kaperan, 1945eko ekainaren 10.ean..

Otoitz eta Ian

Z

enbat aldiz ez dugu irakurri, Hazparnetik Belokera joaitean aita Xabier-en ikustera, beneditar nekazarien heia berri eta modernoaren aintzinean iragaitean , san Benoaten aholkua "Otoitz eta Lan" egizu!: *ORA ET LABORA..*

Eta zinez otoitz-etxe eta lantegi itxura zuen Belokek, bere kapera, hilerri, liburutegi, ikastegi eta otoitz gela ixilekin alde batetik, bere aberetegi, borda, mahasti, erletegi, oilategi, soro ta iraztor zabalekin bestetik. Hor bilduak ziren ehun bat lagunek bazuten bakoitzak bere jite ta ahalen araberako alapide.

Bizi guzikotz 25 urtetan, bere nahitara gain horretan, duela 50 urte finkatu zen gizon gazteak ere aurkitu zuen, "zerumendi" deitzen zuen gain horretan, san Benoaten deiari erantzuteko zoriona, otoitz eta lan eginez. Ez ordea "gudukarik gabe".

Oroit gara eskolan ikasi genuela greko zaharren ganik "gerla dela denen aita", eta ere Silbain Puvreau-tik Chourio-n gaindi Leon Leon-eraino hainbeste euskal idazlek ausnartu duten erdi- aroko Kenpis-en liburuak dioela "soldaduzka da gizonaren bizia lur honetan": *MILITIA VITA HOMINIS SUPER TERRAM*.

Belokeren itxura asko aldatu da azken 50 urteetan: Ez da hor gehiago ez mahastizainik ez artzainik, ez oilorik ez erlerik eta guitarik batzuek ezagutu ditugun nortasun handiko gizonak, aita Hondet, aita Inda, aita Joannategi, aita Darricau, aita Dassance, aita Oltzomendi itzali zaizkigu; norberak baizik ez dazkien barneko minen berri berekin ereman duke asko ta askok.

Bizkitartean Belokek bizi izan dituen aldaketa guzien, hots, haren historia ageriaren, eta gordearen, lekuko eta partalier zenbait oraino hor dauzkagu: Hona beraz larri larria eta gainez gain haietariko baten, aita Xabier-en azken 50 urteetako urratsak eta lanak.

Lehenik aipa nitzake aintzineko biziarekin eta lanekin, etxeekoekin eta euskal munduarekin, Iratzederrek zituen harremanak, behinere eten ez direnak: Eskualzeen Biltzarreko adixkideek, 1946 an saristatu zuten "Pindar eta Lanho" ren ondotik, "Biziaren Olerkian" barna aurkitzen ditugunak, adibidez:

1941 etik 1946 eraino aipu ziren, "Zeru-Menditik" izeneko sortan, lehenik etxeko berriak: arreba Jenofaren serora sartzea, arreba Mayiren ezkontzea eta amatzea, osaba aita Basilioren heriotzea, eta ilobano baten sortzea; Jakes Légasse adiskidearen Italian gerlan hiltzea, eta Markos Légasse haren anaiaaren Baionan preso sartzea:

"Jautsi naiz atzo... preso omen zaude..."
"Bai, euskaldun bihotzak piztuko dirade
"Badirenaz geroztik, preso ala fraide,
"Pairatzen dakitenak Herriaren alde....."²⁹

Nork erran lezake 1994ean, - atzo Baionatik Parisera preso ereman adixkideak zaituztet gogoan - bertso hori 1946eko uztailaren 7ko dela?.

1947-tik 1957-ra, "Argiz - Argi" sortan berriz, gogoratzen zaizkigu Mixel anaia zenaren hezurren herrira itzultzea eta zauri zaharren berritzea, bainan olerki sorta berean ere sendi dugu, René Lafon euskal irakasleari eskaini olerkian, berpizten ari den euskara zahar maitearen hats berria³⁰.

Ez idurika, ez baita haatik Iratzederren bertso horietarik hain urrun, 1949ean, Arantzazu gainetik zeruko Amari "otoitz pertsutau" ozen den Salbatore Michelena(1919-1965) "fraide pertsulari" anaiaaren "Arantzazu:Euskal sinesmenaren poema"; ez urrun ere, Guatemalatik, "Euzko Gogoa"-ren bitartez 1950ean, Jokin Zaitegik, Orixek eta Andima Ibinagabeitiak, hemengo Iratzeder eta Erdozaintzi-rekin hasi duten elkarrizketa; are gutiago urrun, laster Hegoaldean ehunka eta milaka gaztek mintzairaz zaharraren berreskuratzeko lanabes berriak bilatuko dituztenetarik haien aintzinako, Beloken EZKILA argitaldariarekin, Harinbat-ek eta Pons-ek eta Iratzederrek, argitaratzen duten Euskara Ikasbide berria: "Méthode Basque pour débutants".

Bestek ez bezala, badaki poetak iraganaren eta etorkizunaren arteko loturak egiten: Iratzeder badoakio "bere" aita Donostiarri Lekarotzerako eskerrenezko azken besarkada baten emaitera, euskal soinuen musika biltzen eta zaintzen harek irakatsi diolakotz. Badaki ere, etorkizunean urrun begia daraman Saint-Pierre apezpiku euskaldun zenaren buru eder hartaz oroitzen:

"Ai! haren burua, bihotza hortzetan, mintzatu zenean,
"Mintzatu, altxatu, ihurtzurikatu: "Gure beldur dire,
"Gure beldur ! "³¹,

29. Iratzeder, "Biziaren Olerkia", 185. orr.

30. Ibid. "Berriz ere pertsu kantuz heldu nitzaik Euskara!", 219. orr.

31. Ibid. "Ai! Haren burua...", 241. orr.

Banago batzutan ez ote genukeen guk ere oroitu behar, euskaldun guztiok, burua altzatzen hasiko genuen egunetik, ezinbesteko ondorioak jasan beharko genituela nahitaez euskaldunek. Eta 1948ko irailaren 18an, Saint-Pierrek, Biarritzen erraiten zigularik: "Ils ont peur de nous", sumatua zukeen ordukotz urrunzera zoala euskaldun fededun prestu zaharraren estereotipoa eta ere menturaz berriz ager zitekeela erdiaroan kurri zen "euskaldun fedegabe beldurgarrien" itxura. Parisen eta Madrilen aspaldian orai Euskaldunek jasaten dugun "terrorista" itxura³².

Gogoan dudana erran behar banu, erran nezake, galdatzen diodala batzuetanene buruari, itxuraldatze horretaz euskaldunak berak ote garen bakarrik hobendun, ala Parisen, Madrilen eta Erroman ez ote den ba bere erantzukizuna ikertu behar lukeen deputatu, ministro, apez edo apezpiku zenbait... Bainan noiz, nork eginen dizkigu kontu zuzenak, eta orozgainenk nork eta noiz aterabideak eskainiko³³?

Anartean aita Xabierrek, Janpiarre Urrikariet Mugerreko apezaren eta haren bikari Paul Giltzu senpertar adiskidearen deia izan zuen: ea ez zituen bada, egundainotik gure elizetan latinez kantatzen ziren bezperak, euskaraz ezartzen ahal. Mugerreko elizan kantatuko zituztela, "ikusteko", edo elizako legelariekin erraiten zuten bezala "ad experimentum"?

Ikusi ziren, eta entzun beraz laster Mugeren, "bezperak" euskaraz. 1949 urtea zen. Zer arrakasta ez zuten bildu gerotzik!

Bazituen bestalde Iratzederrek lehenago zenbait antzerki eta "ikusgarri" idatziak, hala nola ZAKALAR (1939), ITSASORA (1940), TONTOTEIKO HIRU SEMEAK (1947), bide beretik emanen ditu oraino EZKILA ETA XIROLA, PIZTU ZAIKU, MARIA ETA KURUTZEA, APEZ, (1951), HERRI MINA (1952), HARRAPAILU eta gainera aita Donostiarren, Gabriel Lertxundiren edo Lebout jaunaren musikarekin, EGUBERRI eta MORTUTIK OIHU (1953).

Hona orai 1954ean, aita Xabierrek aita Lertxundirekin musikan jartzen duela PASIONEAREN textua, Liturgiaren berritze handiaren bezperan, Euskal Herrietaiko eliza askotan ederki baliatuko dena.

EZKILA argitaldariak, 1951-z geroz lan horietarik gehienak, ahal nolako bitartekoak erabiliz, argitaratzen baitzituen, 1954 etik hona, aldizkari berri

32. J. Saint-Pierre, "Les Basques ont-ils été excommuniés?", "Gure Herria", 1922, 222-229. orr.

